



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Dumitru biluzik**

Egilea / Autor: **Koldo Izagirre**

Saila / Colección: Perzebal, 41

ISBN / EAN: 978-84-9109-595-8

Salneurria / Precio: 11,50 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 112

Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm

Materia: Gazte literatura

Adin gomendatua / Edad recomendada: 12-16 urte

Lana / La obra

Koldo Izagirre (Altza-Pasaia, 1953) Dumitru pertsonaiaren sortzailea da (*Dumitru*, 2014), behar ez zukeen lekuan egoteagatik gaizkile bihurtutako nerabea. Bigarren liburu honetan, Dumitruren diarioa aurkezten digu: kezkak, sumindurak, ezinegonak, jakin nahiak, ihes egin beharra. Gaztetxoak izateak ematen dituen lanak. Zergatik utzi ninduen amak? Errumaniar jatorragoa ote nintzateke musika errumaniarra besterik joko ez banu? Euskaldun jatorragoa ote nintzateke errumanieraz jakingo ez banu? Zergatik gorrotatzen du mundua Olatzek? Nola sartu bizitzan? Nola arraio maitatzen da? Biluzik, bai.

–Ihesean, babesik gabe zaude.

Hori ere badakit, badakit, badakit.

–Zure amari deitu behar zenioke.

Nire begien bila, lotsarazi nahian.

–Mesedez, deituiozu.

Espaloi aldera jiratu nintzen. Hondatu gabeko farola gehiegi, izarrik ezin ikusi.

–Ez daukat amarik.

Patricia poliziaren eskua sumatu nuen sorbaldan.

“Barka nazazu” leun bat erantsi zidan.

Nik nahi baino lehenago abandonatu ninduen eskuak.

